

<u>GAIA:</u> Jantokia	<u>NOIZ:</u> Azaroak 7, <u>Argatxan</u>	<u>PARTE-</u> <u>HARTZAILEAK:</u> 28 <u>lagun</u>
------------------------------	---	---

Bileraren akta.

1.- AURKEZPENA: Bilera honen deialdia guraso talde batek egin du. Helburua, beraien ideia ezagutaraztea; jantoki eredu berri bat.

2.- KEZKAK: Gaur egungo jantokiaren inguruko kezkak azaldu dituzte, hala nola, jakien kalitate eskasa, menuen egokitasuna, industrializazioa eta goizean goizetik sukaldatzearen desabantailak.

3.- 2000. URTEKO DEKRETUA: Indarrean dagoen dekretu honek esaten du euskal eskola publiko guztiek catering bidezko jantokia izan beharko dutela Jaurlaritzaren dirulaguntza jasotzeko. Horregatik, eragile eta erakunde desberdinek manifestu bat atera berri dute atxikimenduak lortzeko helburuarekin. Manifestu horretan, dekretuaren berriztapena eskatzen da, ohiko jantoki ereduaz gain aukera desberdinak badirelako eta dirulaguntza jasotzeko eskubidea ukatzen zaielako.

4.- BESTE EREDU BATZUK: Bi eredu aipatu dira:

4.1.- Larrabetzuko eskola publikoa (dekretutik kanpo daude):

Guraso elkarteak kudeatutako jantokia. Menua osatu, erosketak egin, langileak kontratatu, guztia guraso elkartearen esku dago. Inguruko baserritarren produktuak erabiltzen dituzte. Kurtso honetako prezioa: 71,60 € hilero.

4.2.: Salbatore Mitxelena Ikastola (Zarautz):

Ekolapikok kudeatzen duen jantokia da. Hilean 94,14 euro ordaintzen du ume bakoitzak.

Barazkiak inguruko baserritarrei erosten dizkiete, arraina Zarauzko arraindegietan, haragia Zarauzko harategietan...

5.- EREDU BERRI HAUEN HELBURUAK besteak-beste:

- Jakien kalitatea hobetu
- Menu orekatuak
- Ekonomia lokala bultzatu
- Langileen baldintzak hobetu

6.- ERABAKITAKOA:

Bileran emandako informazioa kontutan harturik, antolatzaileek Bideragarritasun plana egitea planteatu dute. Interesgarria izango litzateke, Mogel ikastolan (Mogel Isasi, Iturburu, Argatxa eta Sansaburu kontutan izanik) horrelako eredu bat martxan jarritz gero

jantokiko erabiltzaile bakoitzak ze kuota ordaindu beharko lukeen jakitea.

7.- PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA:

Gehiengoari oso ideia interesgarria iruditu zaio. Horregatik, lan-talde bat osatzea erabaki da biabilidade Bideragarritasun plana burutzeko.

Lan talde honek, hurrengo bileraren data zehaztu du: *Abenduak 12 arratsaldeko zazpiretan, Mogel Isasin. Deialdia irekia da.*